

AZPEITIA / Ipuin kontaketak antolatu dira, astelehenero, udal liburutegian

4 urtetik 10era bitarteko haurrei zuzenduta, abendura arte izango dira, datorren astean hasita

"Haur eta gaztetxoen liburu zaletasuna suspertzeko" asmoz, udal liburutegian, 23.ez, ipuin kontaketa saioak antolatu dira.

Datorren astelehenean, hilak 15, hasiko dira eta urrian, azaroan eta abenduan zehar, astelehenero, burutuko dira saioak. Arratsaldeko 6etan izango dira eta besteak beste, Miriam Mendoza, Bikelmi, Pello Añorga, Maite Franko, Manex, Maider Galarza, Miriam eta Naroa, Anni Fanny eta Oihana Etxegibel ipuin kontalariekin une politak igarotzeko tarteak izango dute liburutegira hurbiltzen diren txikitxoek.

Egitaraua

Haur Hezkuntzako 4. mailakoei zuzendutako tartearekin, hau da 2008an jaiotakoei, hasiko da egitaraua. Hala, astelehenean, hilak 15, Miriam Mendoza arituko da haur eta gaztetxoen liburutegian, kontu kontari. Hurrena, urriaren 22an, 2007an jaiotakoei zuzendutako saioa izango da. Bikelmi izango dute ipuin kontalaria.

Urriaren 29an, Lehen Hezkun-tza 1., 2., 3. eta 4. mailakoentzat arituko da Pello Añorga.

Azaroko lehen astelehenean, Maite Franko izango da aurrean, adi-adi, Haur Hezkuntza 4. mailakoak izango dituenak.

Bigarren astean, Haur Hezkun-tza 5ekoak izango dira liburutegian eta Manex izango dute kontalaria.

Azaroaren 19an, Lehen Hezkuntza 4. mailara artekoek, Maider Galarzaren kontaketeekin gozatzeko aukera izango dute.

Azken astean, Manex, Mirari eta Naroa arduratuko dira ikuslegoari une goxoak pasarazteaz. 2008an jaiotako haurrak izango dituzte aurrez-aurre. Abenduan, bi astetan egingo dituzte saioak. Estrainekoak, Lehen Hezkuntzakoei zuzendutakoa, Anni Fannyk ekarritako pertsonaiak izango ditu protagonista. Azkenik, abenduaren 10ean, Oihana Etxegibel arituko da. Haur Hezkuntza 5. mailakoei zuzendutako saioa izango da.